

auréetik aztertu ezkeroz, batzaraldietako lana asko éreztuko da. Batzorde au osatuko dute : Azkue, Olabide ta Eguskitza jaunak.

III.—Azkue jaunak bere lan bat irakuñi digu : *Flexiones verbales de Oihenart*.

IV.—Bahr jaunak egindako *Baskischen Studien* itzulpena aztertzea Urkijo jaunari egotzi zitzaion. Urkijo jaunak bere lana egiten du ta Euskaltzaindiak onetsi du. Lan au Euskaltzaindiak argitaratuko du ta 100 eleski eragingo dira.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Aldundi-Jauregian, 1929'ko Gara-gafilaren 27' an.

Aurêko batzaraldiko euskaltzain jaunak bildu dira eta otoitzez asi da.

I.—Iztegiko lanetan asi gera *acompassado* lenbizikotz jorik. Lan ontan jaraitu degu asti luzean : esan digute Andoaingo Alkate eta Apaizburu jaunak gurekin itz egin nai dutela ta ate ondoan zai daudela. Sartu ditezela.

II.—Alkate eta Apaizburu jaun abek esan digute : datoñen Agoñaren erdi-aldera, Andoaññen euskal-jai batzuek egin nai dituztela aita Larámendi ango seme argi zanaren omenez, oraintxe dalako aita oñek argitaratu zuen *Eziña-egiña El Imposible vencido*-ren beñeungarñen urtebetetzea. Iru gauza nai lituzteke : jai oietan Euskaltzaindia Andoaññen izatea-euskaltzain batzuek itzaldiak beren gain artzea-ta Euskaltzaindiaren dirulaguntza.

Au esanda alkate ta apaizburu jaunak gelatik irten dira.

Euskaltzaindiak erabaki du :

Azkue jaunak itzaldi bat egingo du : bere gaia *Corografía de Guipúzcoa del P. Larramendi y las costumbres vascas*.

Aita Olabidek beste bat : gaia : *Significación y valor del Imposible vencido*.

Eguskitza jaunak Meza nagusigo itzaldia bere gain artuko du.

Euskaltzaindiak diruz ezin lagun egin lezake bañan liburu batzuek bialiko ditu, euskal-mutil-neska artean banatzeko.

III.—Urgazle F. Saint Jayme-ren bigarren eskutitza irakurri da : esaten digu : bere gogoia betetzeko naiko litzaiokela, *Argia*-k noizean beingo txandaz, lapurtañez idazki batzuek argitaratzea. Erantzun bear zaio, *Argia*-gana zuzentzeko.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Andoain'go Udal - etxean 1929'ko Agoñila'ren 21'an.

Euskaltzain jaun abek batzarétara datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Altube, Eguskitza, Lakonbe, A. Intza, Etxegarai, Landeñetxe, Olabide, Intzagarai ta urgazletatik Manuel Lekuona ta Nikolas Ormaetxea jaunak.

Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak irakurri digu: Intxauspe apezak Bayonako seme ospetsu Charles Bernadou-ri egin zion eskutitz bat. Oraindano argitaratu ez dan eskutitz